IRAGARKIA, Lurreko Garraioak Antolatzeko uztailaren 30eko 16/1987 Legean ezarritakoa hausteagatik irekitako zigor-espedienteen gaineko ebazpen-proposamenak jakinarazteko dena. 4177

IRAGARKIA, Lurreko Garraioak Antolatzeko uztailaren 30eko 16/1987 Legean ezarritakoa hausteagatiko zigor-espedienteen gainean Garraio eta Herri Lan sailburuordeak emandako ebazpenak jakinarazteko dena. 4178

**ZERGA AGENTZIA**
**GIRONAKO ORDEZKARITZA**

IRAGARKIA, ordezkaritzan bertaratzearen bidez jakinarazteko zitazioari buruzkoa. 4179

ANUNCIO por el que se notifican las Propuestas de Resolución de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres. 4177

ANUNCIO por el que se notifican las Resoluciones del Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, de los expedientes sancionadores abajo indicados, en relación a infracciones de la Ley 16/1987, de 30 de julio, de Ordenación de los Transportes Terrestres. 4178

**AGENCIA TRIBUTARIA**
**DELEGACIÓN DE GIRONA**

ANUNCIO de citación para notificación por comparecencia. 4179

# Xedapen Orokorrak

## OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

### Zk-1440

AGINDUA, 2002ko urtarrilaren 22koa, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuarena eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saileko kontratazio mahaia sortzeko dena.

Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzkoak, 4. artikuluan xedatzen du sail bakoitzean kontratazio mahai bat sortuko dela, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren eta dagokion sailburuaren aginduz.

Ondorioz, Administrazio Kontratazioko Aholku Batzordearen txostena aztertu ondoren, hauxe

XEDATU DUGU:

*Artikulu bakarra.–* Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saileko kontratazio mahaia.

1.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako saileko kontratazio mahaia sortzen da, Zerbitzu Zuzendaritzari atxikita, bere zereginak bete ditzan. Horren jarduera-eremua ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren 7. eta 5. artikuluetan daude zehaztuta.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

### N°-1440

ORDEN de 22 de enero de 2002, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Vivienda y Asuntos Sociales, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Vivienda Y Asuntos Sociales.

El Decreto 136/1996, de 5 de junio, sobre Régimen de la Contratación de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi dispone, en su artículo 4, que en cada Departamento se creará por Orden conjunta del Consejero de Hacienda y Administración Pública y del Consejero del Departamento correspondiente, una única Mesa de Contratación.

En su virtud, previo informe de la Junta Asesora de la Contratación Administrativa,

DISPONEMOS:

*Artículo único.–* Mesa de Contratación del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

1.– Adscrita a la Dirección de Servicios se crea la Mesa de Contratación del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales para el ejercicio de las funciones y con el ámbito de actuación previstos en los artículos 7 y 5 del Decreto 136/1996, de 5 de junio.

2.– Hauek izango dira mahai horretako kide:

a) Lehendakaria: Zerbitzu Zuzendaritzako Lege Aholkularitzako Burua. Kargua hutsik badago, titularra kanpoan edo gaixorik badago edo legezko beste edozein gorabehera gertatuz gero, horrez ordez Lege Aholkularitzako Zerbitzuko letratu bat arituko da.

b) Kontratazio-organoaren ordezkari izango den bokal bat, kontratazio-organoak berak izendatua.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoko, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako eta Informatika eta Telekomunikazio Zuzendaritzako kide bana, horien titularrak izendatuak. Azkenak informatika-ondare eta zerbitzuei buruzko espedienteetan baino ez du parte hartuko.

d) Idazkari-bokala: Zerbitzu Zuzendaritzako Kontratazio Zerbitzuko arduraduna. Idazkaritzako eta aholkularitza juridikoko lanak berak egingo ditu eta hitza eta botoa izango ditu. Kargua hutsik badago, titularra kanpoan ego gaixorik badago edo legezko beste edozein gorabehera gertatuz gero, horren ordez Zerbitzu Zuzendaritzako Dirusarrera eta Gastuetako teknikaria arituko da.

136/1996 Dekretuaren 6. artikuluaren 2. Paragrafoak dioenez, banan-banan egin ez diren izendapenak eta agindu honetan aurreikusi ez diren ordezkapenak Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak egingo ditu, agindu honetan beste zerbait xedatu ezik. Izendatukoak ahalik eta gutxien txandatuko direlakoan egingo dira izendapenak eta izendapen horien berri jasoko da espedientean.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko urtarrilaren 22a.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

2.– La referida Mesa estará compuesta por los siguientes miembros:

a) Presidente: El responsable del Servicio de Asesoría Jurídica de la Dirección de Servicios. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será sustituido por un letrado del Servicio de Asesoría Jurídica.

b) Vocal en representación del Órgano de Contratación designado por éste.

c) Tres vocales en representación, uno, de la Oficina de Control Económico, otro, de la Dirección de Patrimonio y Contratación, y otro, de la Dirección de Informática y telecomunicaciones, este último únicamente en los expedientes referidos a bienes y servicios informáticos, designados por sus respectivos titulares.

d) Vocal-Secretario: El Responsable del Servicio de Contratación de la Dirección de Servicios, que ejercerá las funciones de Asesor Jurídico y Secretario de la Mesa con voz y voto. En los casos de vacante, ausencia, enfermedad u otra causa legal será suplida por el técnico de ingresos y gastos de la Dirección de Servicios.

Conforme a lo dispuesto en el párrafo 2 del artículo 6 del Decreto 136/1996, las designaciones, en su caso, no efectuadas con carácter singular, y las suplencias no previstas en la presente Orden, serán acordadas por el Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, salvo que en la presente Orden se disponga otra cosa. Dichas designaciones se efectuarán procurando la menor alternancia posible en las personas designadas y de ellas se dejará constancia en el expediente.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 22 de enero de 2002.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.